


IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA



2025 Maiatza



IBILBIDEA	SARE MOTA	IZENDAPENA	TARTEAK	LUZERA
.....	Foru sarea			
1	Udal sarea	Oriako zubia	1	116 m
2	Udal sarea	Kale Nagusia	2a – 2b – 2c-2d	556 m
3	Udal sarea	San Migel plaza -Ikastola	3a – 3b – 3c – 3d	373 m
4	Udal sarea	Ibaiondo industriagunea	4	528 m
5	Udal sarea	Erribera aldea	5a – 5b – 5c	918 m
6	Udal sarea	Gregorio Ameztoi kalea	6a – 6b	310 m
			Denera udal sarea	2.801 m

IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

2. IBILBIDEA: KALE NAGUSIA


2a KALE NAGUSIA I

Egungo egoera

250 metro luze inguruko tarte honetan bi noranzkoko galtzada eta aparkalekua dago alde bietan. Ekialdeko espaloiak zabalera aldakorra du, orohar irisgarria delarik.





Kale Nagusia Kalea, N° 25
Sección actual



Proposamena

2,30 metroko bi noranzkoko bizikleta bidea proposatzen da, gaur egun autoen aparkalekua dagoen lerroa erabiliz (22 leku kenduz), galtzadarekiko 0,5 metroko babes bandarekin.

Obra-lan gutxirekin egin daiteke galtzadaren maila berean (espaloien beherapenak, farola batzuk mugitu). Beste aukera zorua goratzea da, oinezkoen maila berean utziz. Hau mantenurako eta segurtasun sentzaziorako alternatiba hobea da. Hirugarren aukera oinezkoen eta trafikoaren arteko maila batean erakitzea da.




2b KALE NAGUSIA II

Egungo egoera

Hegoaldetik abiatuta zabalera handitzen doan lorategi batek espaloia bi zatitan banatzen du. Etxearen ondoko espaloiak 1,5 metro ditu eta errepide ondoko espaloiak 3 m, oinez zein bizikletaz gehien erabiltzen den aldea. Beste aldean 1,2 metro zabal duen hirugarren espaloia bat dago, oso erabilera marjinala duena.




Kale Nagusia Kalea, n10
Sección actual




Proposamena

Aurretik proposatzen den bizikleta bide eskusiboari jarraipena ematea proposatzen da, oinezkoen eta bizikleten ibilbideak bananduz. Soluzio honek lorategien eta farolen birkokapena eta deskribatutako zirkulazio banden neurriak birplanteatzea eskatzen du, bizikletentzako eta oinezkoentzako neurri egokiak izan daitezkeen.



Kale Nagusia Kalea, n10
Sección propuesta




2d KALE NAGUSIA IV

Egungo egoera

Kaleak tarte honetan bi noranzkoko galtzada zabala, bi espaloi irisgarri eta 5 aparkaleku alde batean ditu.




Kale Nagusia Kalea, N° 1 Sección actual




Proposamena

2,40 metroko bi noranzkoko bizikleta bidea proposatzen da, gaur egun autoen aparkalekua dagoen lerroa erabiliz (5 leku kenduz), galtzadarekiko 0,7 metroko babes bandarekin.

Obra-lan gutxirekin egin daiteke galtzadaren maila berean (espaloien beherapenak, farola batzuk mugitu). Beste aukera, mantenurako eta segurtasun sentzaziorako hobea da, bizikleta bidea oinezkoen maila berean jarritz.





Kale Nagusia Kalea, N° 1 Sección propuesta







IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

2. IBILBIDEA: KALE NAGUSIA



KALE NAGUSIA

-  Alineazio berria
-  Bidegorria
-  Oinezkoekin partekatutako eremua/bidea
-  Oinezkoen eremua / Espaloia

IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

3. IBILBIDEA: SAN MIGEL PLAZA – IKASTOLA

3a SAN MIGEL PLAZA PLAZA

Egungo egoera

Kaleak S-28 erregulazioa du, bi espaloi eta galtzarekin, eta irisgarritasun arazoekin. Gauz aparkatzea baimenduta dago eta zamalanak goizeko ordu zehatzetan. Bertan izaten diren joan-etorri kopuruarekin, oinezkoek eta bizikletak espazioa partekatze arazorik gabeko tartea da.



Proposamena

Plaza eta kalea bera eraberritu egingo dira plataforma bakarra eginez eta irisgarri bihurtuz. Erregulazioa S-28 edo bizitegi-kalekoa izaten jarraituko du. Eremu osoan oinezkoena izango da lehentasuna, aparkatzea debekatuta egongo da eta soilik baimendutako ibilgailuek zeharkatu ahal izango dute, horien artean bizikletak eta bi noranzkoetan. S-28 seinale bertikala osatzeko irudi osagarriez gain (bizikletarena tartean) lurrean partekatua dela adierazteko gida edo txapa batzuk jartzea proposatzen da.



3b ESKOLA ETA KIROLDEGIA


Egungo egoera

Dagoeneko guztiz oinezkotutako ibilbidea da. Aurreko tartean bezala, izaten diren fluxu edo joan-etorri kopuruarekin, oinezkoek eta bizikletak espazioa partekatze arazorik gabeko tartea da.



Proposamena

Espero diren fluxuekin oinezko eta bizikleten arteko bizikidetzaren formalizatzea proposatzen da, horretarako seinaleztapen bertikala ezarriz. Seinaleak oinezkoen lehentasuna eta bizikleten zirkulazioa baimenduta dagoela adieraziko du.



3c KIROLDEGIA

Egungo egoera

Ibilbide hau egunerokoan kiroldegira, ikastolara eta industrigunera joaten diren txirindulari eta oinezko askok baldintza desagokietan erabiltzen dute, izan ere, kiroldegia inguratzen duen azalera guztiz asfaltatua dago eta espazioa horren %85-90 autoari eskainia dago, zirkulatzeko zein aparkatzeko.




Proposamena

Espazio ia osoa, edo behintzat bi alderik erabilienak oinezkoen guztizko lehentasunerako eraldatzea proposatzen da. Kostu baxua bilatzen bada hirigintza taktiko bidez egin daiteke, hau da, obra minimizatuz, zoladura berean margoa, eserlekuak, edota hiri altzariak ezarriz.



Bertan egoteko funtzioaz gain eskola-mugikortasunerako garrantzia handia duen tartea dela azpimarratu behar da.



3d IKASTOLA


Egungo egoera

Gaur egun existitzen den 40 metro inguruko bizikleta-espaloia moztu egiten da ikastolara iritsi aurretik. Ikastolako sarrera inguruan espaloi normala dago eta industriagunerako bidean, ikastolako hesia tartean, bizikleten eta oinezkoen bizikidetzaren emateko tartea estua dago.




Proposamena

Aldundiaren proiektuarekin bat eginez proposatzen da existitzen den espaloia oinezkoen eta bizikleten artean partekatua izatea.







IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

3. IBILBIDEA: SAN MIGEL PLAZA - IKASTOLA



SAN MIGEL PLAZA -
IKASTOLA

-  Alineazio berria
-  Bidegorria
-  Oinezkoekin partekatutako eremua/bidea
-  Oinezkoen eremua / Espaloia


IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

6. IBILBIDEA: GREGORIO AMEZTOI

6a GREGORIO AMEZTOI I



Egungo egoera

Autoentzako noranzko bakarra duen kalea da. Garajeen ibiak alde batean eta aparkalekuak ditu lerroan albo bietara lehenengo 40 metrotan (lehen tartea)



Proposamena

Kaleko lehen tartean Kale Nagusitik hasita iparraldeko espaloia zabaltzea proposatzen da, gutxienez espaloietako bat irisgarria izan dadin. Horretarako 2 aparkaleku kendu behar dira. Bizikleta galtzadan integratzen da noranzko batean espazioa autoekin partekatuz eta bestean kontrako noranzkoko erreia ezarri, horretarako 4 metroko galtzada utziko litzateke. Señaleztapen bertikala eta horizontala behar da.




6b GREGORIO AMEZTOI II

Egungo egoera

Autoentzako noranzko bakarra duen kaleak jarraitzen du bigarren 50 metroko bigarren tarte honetan. Aparkalekuak kasu honetan lerroan eta baterian daude.



Gregorio Amezttoi Kalea
Sección actual




Proposamena

Aurreko fitxan proposatutako bizikleta bide mota proposatzen da. Aparkalekuak baterian mantendu baina zeharka jarri behar dira eta orientazioa autoa atzeraka aparkatzeko moduan ezarri behar da.




Gregorio Amezttoi Kalea
Sección actual



IRURAKO BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

6. IBILBIDEA: GREGORIO AMEZTOI



GREGORIO AMEZTOI



Alineazio berria
Bidegorria
Oinezkoekin partekatutako eremua/bidea
Oinezkoen eremua / Espaloia